



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

EHUko IKASLE KONTSEILUAK ETENALDI AKADEMIKOA DEITU DU GAURKO MARTXOAREN 17ko GREBA OROKORRAREN HARIRA

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

2026ko martxoaren 17a — Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak etenaldi akademikoa deitu du egun osorako, ikasleok gaurko, martxoaren 17a, deitutako greba orokorrarekin lotuta hiri, herri eta auzo desberdinetan deitutako mobilizazioetan parte hartzeko aukera izan dezagun.

Greba hainbat sindikatu eta agente sozialek deitu dute, gure lurraldearen testuinguru bereziari egokitutako lanbidearteko gutxieneko soldata propio bat eskatzeko asmoz, bizi-kostuaren igoera geldiezinaren, lan-baldintzen prekarizazioaren eta gazteen bizi-baldintzen okertzearen aurrean.

Testuinguru honetan, Ikasle Kontseiluak funtsezkotzat jotzen du ikasleok aurreikusitako mobilizazioetan parte hartu ahal izatea. Etenaldi akademikoa unibertsitate-bizitzaren baitan aitortutako tresna bat da, ikasleoi ondorio akademiko negatiborik izan gabe protesta baketsurako eta aldarrikapenak adierazteko eskubidea baliatzeko aukera ematen diguna.

EHUko Ikasle Kontseiluak ikasleria osoari etenaldi akademikoarekin bat egin eta egun osoan zehar deitutako mobilizazioetan aktiboki parte hartzeko deia egiten dio, bere ingurune sozialarekin konprometitutako unibertsitate publiko baten eta bizi-baldintza justu eta duinen aldeko konpromisoa berretsiz, **historikoki EHUko ikasleok izan dugun izaera aldarrikatzailearekin eta gizarte zein unibertsitate eskubideen defentsarekiko konpromisoarekin bat etorritz.**

EHUko Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua